



*Turismo-zulo guztietan bezala, jokoak nagusi.*



*Hondartzen xarmari, objektu-emakumeak erasten.*

# EIVISSAN GAINDI MIARRITZE GOGOAN

Ezer gutxi nekien nik Eivissa uharteaz orain dela aste batzu lehenengo aldiz hara joan aurretik. Bost Balearen ilara buruz ikastean, «Ibiza» esan ohi genuen. Zehazki, ordea, zer dakigu euskaldunok Paisos Catalanes delakoan eskualde horretaz?

Bernat Joan i Martí adiskide gazteak (25 urtetako soziolinguista gazte bat) Euskal Herriko hizkuntz egoeraz paraje haietan hitzaldi pare bat ematea proposatu zidanean, ziplo irten zitzaidan baiezkoa. Eta han nengoen maiatzaren haseran.

Patxaran egoteko lekuri baldin bada, Eivissa duzue bat. Xehetasun bat ahantzi gabe, dena dela, ezin daitekeela hara uda betean joan. Posible da joatea, jakina, baina udako hilabeteetan areago agur daiteke han kanpotar jendea, bertako eivissatarrik baino.

Hain zuzen ere, maiatzaren 9rako, hasia zen turistaren olatua. 36 hegazkin iritsi ziren egun hartantxe, eta kondaketa eginez gero, hau da emaitza: 12 hegazkin Alemaniatik (Eivissan alemaniar turistak nagusi); 7 hegazkin Britainia Nagusitik; beste 2 hegazkin Suizatik, baita beste batzu, bana. Holanda, Belgika, eta Austriatik. Gainerakoak Paisos Catalanesetatik, baita bakar bat ere Madriletik. Eta zenbait aisa egin daitekeenez, turistak maiatzaz geroztik bertaratzen direla nabarmen agertzen da.

Uharteak 541 km<sup>2</sup> ditu, eta neguan 70.000 biztanle. Udan, aldiz, 200.000atik gora kondatu behar dira.


Urik ez dagoenez (Sitges-ko ura baino ere garrantzago eta gaziagoa da Eivissakoa), alde honetatik sortzen dira oztopo nagusiak. Etxetxo zuri eta prismatikoz beterik dago uhartea jadanik, beroien zaindari gisa txunbera bana gutxitan falta delarik. Arrokkak eta pinuak non nahi; eta bai zerua bai itsasoa urdin sakonekoak, Grezian bezalaxe. Urtean 450 litro besterik ez: bazter lehorrak, beraz.



Turismo egiteko leku aproposa, hitz batez. Eta badirudi aspaldidanik jabetu zirela honetaz kartagotar eta erromatar aberatsak: fama handia omen zuen «Mendebaldeko Uharte» honek; eta hala ageri da hilerrietan eta arkeologi aztarna ugarietan. Emakumeak bide ziren gailen nahikara horretan: imajinatxoeta, nekez aurki daiteke belarrietako zulorik gabeko alerik; eta bikor desberdinetako koi-lare koloretsuak ez dira urri.

Baina hori arkeologiaren mailan aurkitzen bada, zer esan eivissatarrez? Oso ongi egin du Pierre Deffontaines idazleak: «Ibiza est menacée de devenir une île complètement folklorique». Horregatik idatzi dut arestian Miarriritzez eta Ipar Euskal Herriaz gogoratzin nintzela Eivissan. Martxa honetan aurki izan daiteke Eivissa katalana, Ipar Europatarren bakantza-leku abstrakto bat.

Jakina, bertako jauntxoak pozik bizi dira. Lur sailak galesti saltzen dira, udalekuak ongi alogeratzen dira... primera! Eta bertako jauntxoak erabat eskuindar eta espainolista dira,




*Eskualde ederrei, zementua nagusitzen ari.*

Folklore-zulo bihurtzen ari, hortaz, Eivissa ederra, baina bertako jauntxo-zen zerbitzutan.

Berehala somatzen da hau. Kaiaren bertan, eta kale nagusietan beraz, lau kale-izen hauek erreparatu ditut: General Franco, Almirante Carrero Blanco, Carlos V, eta Felipe II... ez zegok gaizki, alajainkoa! Elkarren ondo-ondoan laurak.

Turismoaren mauka hasi arte gatzaren bilketa zen bizimodu garrantzitsu bat uhartean; baina hau beratu ere abandonatua izan da, aideportutik beretik tristuraz ikus daitekeenez.

Uharteak bost udalerrri ditu. Batek bakarrik itzuli du katalanerara bere izen ofiziala: Eivissa hiriburuak, hain zuzen. Beste bostek ez dute ezer egin: «tramitazioaren luzea» omen da alka-



*Itsasertze guztian barrena, "cala" zoragarriak ageri.*

teek eman duten arrazoia.

Nolako alkateak, ordea? Erantzuna hau da, bostak dira AP-koak (hauetako bat dena dela, PSOE-ren laguntzaz hautatu dute).

Turistak zerbitzatzeko, berriz, langileria merkea behar zen; eta andaluzak etorri dira mordoka. Neronek ikusi ditut multzo batzu azokan. Almeriako doinu nabarmenez mintzatzen ari. Eivissa hiriburuan %40 dira jadanik; eta aurki eivissatarrek gutxiengoan jarriko dira (Jakina, udan hala daude; eta gazte askok et askok ikasten du, eta gero maiz baliatzen, Goetheren hizkuntza).

Oraindik ere, Bernat Joanek aurkitu duenez, uharteko %72-ek katalanez hitz egiten jakin arren (mintzatzen bai, baina idazten oso gutxi), gaztelania da nagusi jadanik. Eta, Bernat Joan-en hitzez esateko, «procés irreversible d'aculturació» baten aurrean gaude. Soziologiaren mailan gertatu dena, «canvi que mai no ha assimilat, rapidísim, irracional i vertiginós (batez ere 1960ez geroztik).

Valenciako fenomeno bera somatu dut. Mintzaldiaren ondoko elkarrizketan, ikasle gazte batek hau erantzun baitit: «Tú hablas del catalán. Pero aquí no somos catalanes; somos ibicencos; y nuestra lengua es el ibicenco» ...Dirudun familietako gazteen artean, horixe bide da pentsakera nagusia.

Bernat Joanek argitara duen liburuan («Bilinguisme? Normalització? Dades sobre el conflicte lingüístic a l'illa d'Eivissa». Palma. 1984) berri hitzak dira gailen. Adibidez: ama-hizkuntza katalanera baldin bada ere 72-entzat lanean katalanera ez da 29 baizik erabiltzen (edo, beharbada garbikiago: gaztelania da lanaren hizkera: %71).

Datu antzekoak ditugu alor desberdinetan. telebista gaztelaniaz da ia osoki (ordu erdi bat «elebidun»: «Informatiu Balear» delakoa). SER katea eta Radio Diario delakoa gaztelania hutsez ari dira, Popularrak egiten du gehinik katalaneraz: astean 3,25 ordu... nahiz bertako enpleguak katalandunak izan.

Deskalabro bera irakaskuntzan: 33 ikastetxe daudelarik, bakar batek ere ez du irakaskuntza osoa katalaneraz ematen. «Diario de Ibiza» delakoak, 3.000 ale saltzen, dena egiten du gaztelaniaz; eta politikaren adetik, «eskuinetik eskuin-muturrera» jarri behar omen da (malenkoniaren oroitu naiz «Sud Ouest» jatorraz...).

Hitz Batez, 1979ko «Decreto de Bilinguismo para las Islas Baleares» delakoak, ez du ezer konpondu; baina hizkuntza ordezkapena legeztatu du. Hau bai.

Zer diote gazteek? Hauxe da kaka. Eta nik Es Vedra arroka gaitzaren aurrean egin dugun bazkari gogoangarrian ezagutu ditudanak, esperantza bidea ireki didate. Soziolinguistikazko inkestetan lagundu diete Joan eta Torres irakasleei, egoeraren kontra aurkitu ditut; eta, hitz batez, agian Eivissak baduke segidarik. Agian, berriz,

Bestela etorkizun latza datorkie eivissatarrei. Britainiar «ganberro»en izurritea ere, Bruselasko sarraskia baino lehenago ezagutu baitute hango parajeetan (artikulu mamitsua irakurri nuen han, honi buruz, Nito Verderraren bitartez).

Agian, beraz.

Eta ARGIAko lerro hauetatik, bihoakie Eivissako borrokakideei neure agurrik bihozkorrena.